# ALICE ZINEMA

## PROYECCIONES

## EXPOSICIÓN

SESIONES EDUCATIVAS MATINALES



INSTITUT FRANÇAIS ALCINE50 FUNDACIÓN CAJANAVARRA Fundación "la Caixa" innovacultural golem

EXPOSICIÓN

# "HIJAS DE ALICE GUY"

## REIMAGINANDO UNA HISTORIA DE CINE

La historia del cine es, como tantas otras, una historia de desigualdad de género. Ya desde sus albores, la cineasta pionera **Alice Guy Blaché** (1873-1968) fue víctima de esta omisión perpetuada hacia la labor artística de las mujeres. Coetánea de figuras relevantes como las de los hermanos **Lumière** o la de **George Méliès**, **Guy** filmó la primera ficción narrativa de la historia en 1896, adelantándose a todos ellos. No obstante, pese a su propia productora independiente y dirigir más de 1000 cortometrajes —siendo influencia decisiva para autores de la talla de **Alfred Hitchcock**—, gran parte de su obra desapareció y su nombre fue borrado de la historia oficial prácticamente hasta nuestros días.

Su caso podría aplicarse al de otras tantas directoras, productoras, guionistas o montadoras que empezaron a trabajar con el nacimiento de este nuevo arte sin que su obra haya tenido el reconocimiento necesario: del clasicismo de **Dorothy Arzner** o **Lois Weber** en Hollywood a la mirada vanguardista de **Aleksandra Khokhlova** u **Olga Preobrazhenskaia** en la Rusia, los guiones de **Pu Shunqing** en China, las animaciones de **Lotte Reiniger** en Alemania o, sin salir de nuestro país, las películas de **Helena Cortesina** o **Rosario Pi**.

Desde **GOLEM** con **ALCINE** hemos querido sumarnos a la lucha por recuperar el legado de todas estas mujeres y devolverle el espacio que les corresponde. Con la colaboración de un grupo de ilustradoras y escritoras cinematográficas, proponemos imaginar cómo hubiera sido la historia del cine si las figuras de **Guy** y sus contemporáneas hubiesen tenido la relevancia merecida en una industria en la que hombres y mujeres ocupasen un lugar de igualdad: ¿Cómo hubiesen sido los grandes clásicos? ¿Cómo se presentaría el star system actual? ¿Y el cine indie o el de acción? ¿Qué aspecto tendrían movimientos como el expresionismo alemán o la nouvelle vague?

Localizada en tres espacios, **GOLEM BAIONA**, **GOLEM YAMAGUCHI** y **BIBLIOTECA YAMAGUCHI**, y complementada en GOLEM BAIONA por un ciclo de proyecciones comisariado por el prestigioso **WOMEN FILM PIONEERS PROJECT** de la Universidad de Columbia, proponemos un divertimento, a caballo entre la reivindicación y la herstory especulativa, mediante el que hacer una lectura crítica de nuestro pasado, creando un "re/imaginario colectivo" que, sin duda, habla también de nuestro presente.



# THE WOMEN FILM PIONEERS PROJECT

**The Women Film Pioneers Project (WFPP)** es un proyecto de investigación que integra una base de datos a través de una web específica de acceso gratuito que pretende visibilizar el trabajo realizado por mujeres durante los años anteriores al denominado cine sonoro con especial atención a las primeras décadas de la historia del cine. El proyecto abarca directoras, productoras, montadoras, guionistas, adaptadoras, críticas, técnicas, empresarias... Impulsado por la prestigiosa Universidad de Columbia (Nueva York, EE.UU.), el proyecto y la base de datos que recoge la página web está en constante expansión y la esencia la constituyen las biografías de mujeres de todo el mundo que se complementan con fotografías, clips de vídeo y ensayos que pretenden visibilizar también todo el trabajo de mujeres anónimas como colectivos de trabajo en el cine: coloristas, repasadoras, secretarias y ayudantes de rodaje, etc. ampliando el campo de estudio y poniendo especial atención a la diversidad social, étnica y geográfica.

La iniciativa, además, se complementa con la organización de distintos congresos internacionales que desde 2002 se han celebrado en países como Estados Unidos, Canadá, Italia, Suecia, China, México... El proyecto integra a investigadores de todo el mundo. En una primera fase se abordó sistemáticamente el trabajo de las mujeres en el cine de Latinoamérica y Norteamérica, y actualmente se complementan esas áreas a la vez que se trabaja también en otros países. Desde la Universidad Rey Juan Carlos de Madrid, la profesora **Begoña Soto Vázquez** es la encargada de coordinar las investigaciones sobre España desde 2004: ya se ha publicado la biografía de **María Luz Morales Godoy** —importante crítica y escritora cinematográfica—, y la de **Helena Cortesina** —actriz, realizadora y productora—. Se espera que la aportación española se traduzca en al menos siete biografías.

No podíamos terminar el recorrido por esta exposición sin brindar a sus visitantes la oportunidad de ver de primera mano las películas de **Guy Blaché** y otras pioneras. Para ello, el equipo de **WFPP**, coordinado por la profesora **Kate Saccone**, ha realizado una selección de piezas de la época especialmente pensadas para el público de **Hijas de Alice Guy**.

## PROGRAMA

**MADAME A DES ENVIES/MADAME'S CRAVINGS**
(Gaumont, France, 1906) Directora/Guionista: Alice Guy

**SUSPENSE**
(Universal Film Manufacturing Co., U.S., 1913) Co-Directora/Guionista/Actriz: Lois Weber

**DAISY DOODAD'S DIAL**
(Turner Films, UK, 1914) Directora/Productora/Actriz: Florence Turner

**THE CURSE OF QUON GWON: WHEN THE FAR EAST MINGLES WITH THE WEST**
(Mandarin Film Co., U.S., 1916) Directora/Guionista/Productora/Diseñadora de vestuario/Actriz: Marion E. Wong

**WAY DOWN WEST**
(China Sun Motion Picture Co. Ltd., China, 1927) Guionista/ Ayudante de dirección: Pu Shunqing

**THE ADVENTURES OF PRINCE ACHMED**
(Comenius-Film GmbH, Germany 1926) Directora/Guionista/Animadora: Lotte Reiniger

**THE TRAIL OF THE NORTH WIND** (Nell Shipman Productions, U.S., 1924) Directora/Guionista/Productora/Montadora/Actriz: Nell Shipman

**A' SANTANOTTE/THE HOLY NIGHT**
(Dora Film Co., Italy, 1922) Directora/Guionista/Productora: Elvira Notari

**LUCKY STAR**
(Fox Film Corp., U.S., 1929) Guionista: Sonya Levien Rotulista/Editora: Katharine Hilliker

**THE SINGLE STANDARD** (MGM, U.S., 1929) Guionista: Josephine Lovett Basada en un texto de: Adela Rogers St. Johns Montadora: Blanche Sewell Rotulista: Marian Ainslee

# PROYECCIONES

**LUNES 10 ENERO**
## INAUGURACIÓN

Presentación de la exposición y proyección de cortometrajes de cineastas pioneras del Women Film Pioneers Project (Universidad de Columbia).

**Invitado**: **PEDRO TORO**, comisario de "HIJAS DE ALICE GUY".

**MARTES 11 ENERO**
## DOCUMENTAL "LA PIONERA"
(Pamela B. Green, 2018 102', VOSE)

¿Por qué nadie ha oído hablar de Alice Guy-Blaché? La historia jamás contada sobre la primera mujer cineasta, pionera en trasladar la ficción al cine. Un homenaje estrenado en la sección Cannes Classics que cuenta con los testimonios de algunas de las cineastas más reconocidas de la actualidad, como **Patty Jenkins** ("Wonder Woman") o **Ava DuVernay** ("Selma") así como de grandes directores como **Martin Scorsese**.

**Invitadas**: **IPES FUNDAZIOA**.

**MIÉRCOLES 12 ENERO**
## CORTOMETRAJES DE ALICE GUY BLACHÉ
(Francia, 50', películas mudas)

**Chez le magnétiseur** (Comedia, fantástico, 1898, 1 min.)
**Chirurgie fin de siècle** (Comedia, 1900, 2 min.)
**Avenue de l'Opéra** (Documental humorístico, 1900, 1 min.)
**Chapellerie et charcuterie mécaniques** (Comedia, 1900, 1 min.)
**Chez le photographe** (Comedia, 1900, 1 min.)
**Questions indiscrètes** (Musical, 1905, 2 min.)
**Madame a des envies** (Comedia, 1906, 4 min.)
**Les résultats du féminisme** (Documental, 1906, 7 min.)
**Le lit à roulette** (Comedia, 1907, 4 min.)
**La course à la saucisse** (Comedia, 1907, 4 min.)
**Alice Guy tourne une phonoscène...** (Documental, 1905, 2 min.)
**Sur la barricade** (Drama, 1907, 4 min.)
**Le billet de banque** (Comedia, 1907, 11 min.)

**Invitada**: **ALEJANDRA VAL CUBERO**. *Profesora en la Universidad Carlos III de Madrid y especialista en cines periféricos (África e India) y género, hasta 2019 enseñó e investigó cine en el College of Communication and Media Studies (Zayed University, Dubai). Ha realizado estancias predoctorales en Harvard University y Jawaharlal Nehru University y trabajó como periodista en el Instituto de la Mujer en Madrid. Ha publicado varios libros sobre género y cine, como es el caso de "La vida de Alice Guy" (2016).*

**JUEVES 13 ENERO**
## CLAUSURA

Proyección de cortometrajes realizados en el taller impartido por **Julio Mazarico**, así como las obras pictóricas realizadas en el taller de **María Bueno**.

**Invitado**: **JULIO MAZARICO**. *Productor, guionista y director de cine. Presidente del Cineclub Muskaria. Socio fundador de Escorzo Films SL. Gestor del Festival Opera Prima de Tudela y de la Muestra de Cine Español de Tudela.*

# SESIONES EDUCATIVAS

**TALLER** (27-30 DICIEMBRE)

## "RODANDO UN CORTO COMO ALICE GUY"

El objeto del taller es vivir la experiencia de las pioneras del cine, haciendo un cortometraje en torno a **Alice Guy**, muy visual, con valores del género y la temática del cine dentro del cine. Con **JULIO MAZARICO**.

**TALLER** (MARTES 4 Y VIERNES 7 ENERO)

## "GRABANDO CON OTRA MIRADA"

Taller que acerca la tecnología del siglo XXI al arte de contar historias de principios del XX, de la mano de **Alice Guy**.
Con **MARISA SERRANO**. *Confundadora de la compañía Ditirambo Teatro y profesora invitada en la Escuela Navarra de Teatro, desde 2003 imparte talleres en Navarra y el resto del Estado. Desde 2016 forma parte del equipo de "Crecer con Arte: las Artes Escénicas en la inclusión social"*.

**TALLER** (DOMINGO 9 ENERO)

## "CONVERSACIONES CON ALICE GUY" DE MARÍA BUENO

Las películas mudas de **Alice Guy** servirán de inspiración en un taller de pintura diferente, en que los participantes darán forma y color a sus obras a partir de fotogramas de los filmes.
Con **MARÍA BUENO**. *Licenciada en Bellas Artes y formada en el Atelier Jean-Luc Leduc y la Escuela Superior de Bellas Artes de Toulouse, viene mostrando su trabajo (dibujos, pinturas, grabados y esculturas) desde 2005, en espacios como la Fundación Picasso malagueña, la Galería Rafael Pérez Hernando, que la representa; La Vidriera de Camargo y Olvera (Sevilla), el festival SWAB barcelonés o ARCO.*

**TALLER** (DOMINGO 9 Y LUNES 10 ENERO)

## "TRUCAJES CINEMATOGRÁFICOS: DE ALICE GUY A GEORGES MÉLIÈS"

Los asistentes conocerán los principales avances técnicos de la historia del cine, destacando las aportaciones de **Alice Guy**, y crearán y protagonizarán un cortometraje con trucajes de cine que se proyectará al final del taller.
Con **JOSÉ MARÍA JIMÉNEZ** de **MICE** (Muestra de Cine Educativo de Madrid), festival con finalidad educativa que promociona la alfabetización audiovisual, dirigido especialmente a los niños, niñas, jóvenes, y sus familias y docentes.

**SESIÓN** (MARTES 11 Y MIÉRCOLES 12 ENERO)

## "PRIMER ACERCAMIENTO AL CINE DE LA MANO DE ALICE GUY"

Proyección de una selección de cortometrajes de **Alice Guy**. El cineasta navarro **Imanol Rayo** explicará los inicios del cine y analizará los referentes que sientan las bases del lenguaje cinematográfico.
Con **IMANOL RAYO**. *Graduado en dirección cinematográfica en la Escuela de Cine de Andoáin, estudió Escritura Cinematográfica con Michel Gaztambide. "Bi anai" fue su primer largometraje e "Hil kanpaiak" se estrenó en New Directors del Festival de Cine de San Sebastián en 2020.*

**SESIÓN** (JUEVES 13 ENERO)

## "ALICE GUY CON ALEJANDRA VAL CUBERO"

Proyección de una selección de cortometrajes de Alice Guy, con presentación y coloquio posterior de mano de la investigadora **Alejandra Val Cubero**.
Con **ALEJANDRA VAL CUBERO**.

*Con la participación de nuestras aliadas & aliados: Amaiur Ikastola, Colegio Santa Teresa de Jesús, IES Iturrama, IES Navarro Villoslada, Servicio de Participación Educativa (SEI), Asociación cultural Soterraña (Biurrun).*

# ALICE ZINEMA

## PROIEKZIOAK

## ERAKUSKETA

GOIZEKO SAIO HEZIGARRIAK



MINISTÈRE DE L'EUROPE ET DES AFFAIRES ÉTRANGÈRES · INSTITUT FRANÇAIS · ALCINE50 · FUNDACIÓN CAJANAVARRA · Fundación "la Caixa" · innovacultural · golem

# “HIJAS DE ALICE GUY”

## ZINEMAREN BESTELAKO HISTORIA BAT IRUDIKATZEN

Zinemaren historia, beste asko bezala, genero-desberdinkeriako historia bat da. Hastapenetan ere, **Alice Guy Blaché** (1873-1968) zinemagile aitzindaria emakumeen lan artistikoaren betiereko omisioaren biktima izan zen. Garaikide izan zituen **Lumière** anaiak eta **George Méliès** ospetsuak, esaterako, eta haiei guztiei aurrea hartuta, historiako lehenengo fikziozko narrazioa filmatu zuen, 1896an. Hala ere, bere ekoiztetxe independentea eduki arren eta 1.000 film labur baino gehiago zuzendu bazituen ere —**Alfred Hitchcock** eta pareko egileengan eragin erabakigarria izan zuen—, **Guy**ren lanaren zatirik handiena desagertu egin zen, eta haren izena zinemaren historia ofizialetik ezabatua izan zen, ia-ia gaur egunera arte.

Antzera gertatu zen zinemako beste emakume askorekin, arte berriaren sorreran lanean hasi ziren zuzendari, ekoizle, gidoigile edo muntatzaile ugarirekin: haien lanari ez zitzaion behar besteko garrantzirik eman. Hor ditugu, adibidez, **Dorothy Arzner**-en eta **Lois Weber**-en klasizismoa Hollywooden, **Aleksandra Khokhlova**-ren eta **Olga Preobrazhenskaia**-ren begirada abangoardista Errusian, **Pu Shunqing**-en gidoiak Txinan, **Lotte Reiniger**-en animazioak Alemanian edota, urrutira joan gabe, **Helena Cortesina**-ren eta **Rosario Pi**-ren filmak Espainian.

**GOLEM**-etik **ALCINE**rekin batera bat egin nahi izan dugu emakume horien guztien legatua berreskuratzeko eta dagokion lekua emateko borrokarekin. Zinemako emakume ilustratzaile eta idazle batzuen lankidetzarekin, ariketa bat proposatu nahi dugu: irudikatzea nolakoa izango zen zinemaren historia **Guy** eta haren garaikide izan ziren beste emakume batzuen lanak merezitako ospea izan balu, industria horretan gizonak eta emakumeak berdintasunez kontuan hartu izan balira. Nolakoak izango ziren lan klasiko handiak? Nolakoa izango zen egungo star system delakoa? Eta indie zinema edo akziozkoa? Zer itxura izango zuten Alemaniako espresionismoak edo nouvelle vague mugimenduak, esate baterako?

Hiru gune izango ditu: **GOLEM BAIONA**, **GOLEM YAMAGUCHI** eta **YAMAGUCHI LIBURUTEGIA**. Jolas moduko bat proposatuko dugu, errebindikazioaren eta herstory gogoetatsuaren artekoa, gure iraganaren gaineko irakurketa kritikoa egiteko eta bestelako imajinario kolektibo bat irudikatzeko, orainaz ere hitz egingo duena, jakina. Osagarri gisa proiekzio-ziklo bat antolatu dugu GOLEM BAIONA aretoetan, Columbiako Unibertsitatearen **WOMEN FILM PIONEERS PROJECT** proiektu ospetsuaren eskutik.



# THE WOMEN FILM PIONEERS PROJECT

**The Women Film Pioneers Project (WFPP)** ikerketa-proiektuak datu-base bat sortu du, doako sarbidea duen webgune jakin baten bidez, helburu argiarekin: soinudun zinema esaten diogunaren aurreko urteetan emakumeek egindako lana nabarmentzea, bereziki zinemaren historiako lehenengo hamarkadei erreparatuta. Proiektuak emakume zuzendarien, ekoizleen, muntatzaileen, gidoigileen, moldatzaileen, kritikarien, teknikarien, enpresaburuen eta abarren lana erakutsi nahi du. Columbiako Unibertsitate ospetsua (New York, AEB) sustatzaile dela, proiektua, hau da, webguneak biltzen dituen datuen basea, etengabe ari da zabaltzen. Mundu osoko emakumeen biografiak dira oinarria, eta horien osagarri argazkiak, bideoklipak eta saiakerak. Era berean, zinemako askotariko kolektiboetako emakume anonimoen lana ezagutarazi nahi da: koloristek, errepasatzaileek, errodajeko idazkari eta laguntzaileek eta abarrek egindako lana. Hala, ikerketa-eremua zabaldu eta arreta berezia eskaini diote dibertsitate sozial, etniko eta geografikoari.

Ekimenaren osagarri, 2002. urtetik aurrera nazioarteko biltzarrak antolatu dituzte, besteak beste, Estatu Batuetan, Kanadan, Italian, Suedian, Txinan eta Mexikon. Proiektuak mundu osoko ikertzaileak biltzen ditu. Lehenengo fasean, emakumeek Latinoamerikako eta Ipar Amerikako zineman egindako lanari heldu zioten, eta, gaur egun, eremu horiek osatzen eta beste herrialde batzuetako zinema aztertzen dihardute. Madrilgo Rey Juan Carlos Unibertsitatean, Begoña Soto Vázquez irakasleak koordinatzen ditu 2004tik Espainiako zinemaren inguruko ikerlanak. Dagoeneko argitaratu dute lehenengo biografia, **María Luz Morales Godoy** zinema-kritikari eta -idazle garrantzitsuari buruzkoa, eta **Helena Cortesina** aktore, errealizadore eta ekoizlea protagonista duena. Espainiako zineman aritu ziren emakumeei buruz gutxienez zazpi biografia argitaratzea da asmoa.

Erakusketan zehar egindako ibilbidea amaitzeko, **Guy Blaché** eta beste aitzindari batzuen filmak ikusteko aukera eskainiko diegu bisitariei. Horretarako, **Kate Saccone** irakasleak koordinatzen duen **WFPP**ko lantaldeak garai hartako pieza batzuk hautatu ditu **Hijas de Alice Guy** erakusketako publikoarentzat.

## EGITARAUA

**MADAME A DES ENVIES/MADAME'S CRAVINGS**
(Gaumont, France, 1906) Zuzendaria/Gidoigilea: Alice Guy

**SUSPENSE**
(Universal Film Manufacturing Co., U.S., 1913) Zuzendarikidea/Gidoilaria/Aktorea: Lois Weber

**DAISY DOODAD'S DIAL**
(Turner Films, UK, 1914) Zuzendaria/Ekoizlea/Aktorea: Florence Turner

**THE CURSE OF QUON GWON: WHEN THE FAR EAST MINGLES WITH THE WEST**
(Mandarin Film Co., U.S., 1916) Zuzendaria/Gidoigilea/Ekoizlea/Jantzien diseinatzailea/Aktorea: Marion E. Wong

**WAY DOWN WEST**
(China Sun Motion Picture Co. Ltd., China, 1927) Gidoigilea/Zuzendaritza-laguntzailea: Pu Shunqing

**THE ADVENTURES OF PRINCE ACHMED**
(Comenius-Film GmbH, Germany 1926) Zuzendaria/Gidoigilea/Animazio-egilea: Lotte Reiniger

**THE TRAIL OF THE NORTH WIND** (Nell Shipman Productions, U.S., 1924) Zuzendaria/Gidoigilea/Ekoizlea/Muntatzailea/Aktorea: Nell Shipman

**A' SANTANOTTE/THE HOLY NIGHT**
(Dora Film Co., Italy, 1922) Zuzendaria/Gidoigilea/Ekoizlea: Elvira Notari

**LUCKY STAR**
(Fox Film Corp., U.S., 1929) Gidoigilea: Sonya Levien Errotulatzailea/Editorea: Katharine Hilliker

**THE SINGLE STANDARD** (MGM, U.S., 1929) Gidoigilea: Josephine Lovett Oinarritzat hartutako testuaren egilea: Adela Rogers St. Johns Muntatzailea: Blanche Sewell Errotulatzailea: Marian Ainslee

# PROIEKZIOAK

**URTARRILAK 10, ASTELEHENA**

## INAUGURAZIOA

Erakusketaren aurkezpena eta Columbiako Unibertsitatearen **Women Film Pioneers Project** proiektuan bildutako emakume zinemagile aitzindarien film laburren erakustaldia.

**Gonbidatua**: **PEDRO TORO**, "HIJAS DE ALICE GUY" erakusketaren komisarioa.

**URTARRILAK 11, ASTEARTEA**

## "LA PIONERA" DOKUMENTALA

(Pamela B. Green, 2018 102', jatorrizko bertsioa gaztelaniazko azpitituluekin)

Zergatik da ezezaguna **Alice Guy-Blaché**? Inoiz kontatu ez den lehenengo emakume zinemagilearen historia. Aitzindari izan zen fikzioa zinemara eramaten. Cannes Classics sailean estreinatutako omenaldi honek gaur egungo zinemagile ospetsuenetako batzuen testigantzak biltzen ditu, hala nola **Patty Jenkins**-ena («Wonder Woman») eta **Ava DuVernay**-rena («Selma»), eta baita zenbait zuzendari handiren iritziak ere, **Martin Scorsese**rena, esaterako.

**Gonbidatuak**: **IPES FUNDAZIOA**.

**URTARRILAK 12, ASTEAZKENA**

## ALICE GUY BLACHÉREN FILM LABURRAK

(Frantzia, 50', film mutuak)

**Chez le magnétiseur** (Komedia, fantastikoa, 1898, 1 min.)
**Chirurgie fin de siècle** (Komedia, 1900, 2 min.)
**Avenue de l'Opéra** (Umorezko dokumentala, 1900, 1 min.)
**Chapellerie et charcuterie mécaniques** (Komedia, 1900, 1 min.)
**Chez le photographe** (Komedia, 1900, 1 min.)
**Questions indiscrètes** (Musikala, 1905, 2 min.)
**Madame a des envies** (Komedia, 1906, 4 min.)
**Les résultats du féminisme** (Dokumentala, 1906, 7 min.)
**Le lit à roulette** (Komedia, 1907, 4 min.)
**La course à la saucisse** (Komedia, 1907, 4 min.)
**Alice Guy tourne une phonoscène...** (Dokumentala, 1905, 2 min.)
**Sur la barricade** (Drama, 1907, 4 min.)
**Le billet de banque** (Komedia, 1907, 11 min.)

**Gonbidatua**: **ALEJANDRA VAL CUBERO**. *Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko irakaslea eta zinema periferikoetan (Afrikakoan eta Indiakoan) eta generoan aditua. 2019ra arte zinema-irakasle eta -ikertzailea izan da College of Communication and Media Studies erakundean (Zayed University, Dubai). Doktorego-aurreko egonaldiak egin ditu Harvard eta Jawaharlal Nehru unibertsitateetan eta kazetari-lanak Madrilgo Emakumearen Institutuan. Generoa eta zinemari buruzko zenbait liburu eman ditu argitara, horien artean La vida de Alice Guy (2016).*

**URTARRILAK 12, ASTEAZKENA**

## ITXIERA

**Julio Mazarico**ren lantegian egindako film laburren proiekzioa eta **María Bueno**ren lantegian egindako margolanen erakusketa.

**Gonbidatua**: **JULIO MAZARICO**. *Zinema-ekoizle, -gidoigile eta -zuzendaria. Muskaria zineklubeko lehendakaria. Escorzo Films SLren bazkide sortzailea. Tuterako Opera Prima jaialdiko eta Muestra de Cine Español ekitaldiko kudeatzailea.*

# SAIO HEZIGARRIAK

**TAILERRA** (2021EKO ABENDUAREN 27TIK 30ERA)

## "FILM LABUR BAT ALICE GUY BEZALA FILMATZEN"

Zinemako emakume aitzindarien esperientzia bizitzea da lantegiaren helburua. Horretarako, parte-hartzaileek **Alice Guy**ren inguruko film laburra egingo dute, lan oso bisuala, genero-balioak izango dituena eta zinema zinemaren barruan gaiari helduko diona.
**JULIO MAZARICO**ren eskutik.

**TAILERRA** (URTARRILAREN 4AN ETA 7AN, ASTEARTEAN ETA OSTIRALEAN)

## "BESTE BEGIRADA BATEZ GRABATZEN"

XXI. mendeko teknologia XX. mendearen hasierako istorio-kontaketaren artera hurbiltzeko lantegia, **Alice Guy** gidaritzat hartuta.
**MARISA SERRANO**ren eskutik. *Ditirambo Teatro konpainiaren sortzaileetako bat da eta Nafarroako Antzerki Eskolako irakasle gonbidatua. 2003tik lantegiak eskaintzen ditu Nafarroan eta Estatuko beste hainbat lekutan. 2016tik «Crecer con Arte: las Artes Escénicas en la inclusión social» lantaldeko kidea da.*

**TAILERRA** (URTARRILAREN 9AN, IGANDEAN)

## "ELKARRIZKETAK ALICE GUYREKIN" MARÍA BUENO IRAKASLE DELA

**Alice Guy**ren film laburrak inspirazio-iturri izango dira pintura-lantegi berezian; izan ere, filmetako fotogramak abiapuntutzat hartuta sortuko dituzte margolanak parte-hartzaileek.
**MARÍA BUENO**ren eskutik. *Arte Ederretan lizentziaduna da, eta Jean-Luc Leduc atelierrean eta Tolosako Arte Ederretako Goi Eskolan trebatu da. 2005ean hasi zen bere lanak (marrazkiak, margolanak, grabatuak eta eskulturak) erakusten, besteak beste, Malagako Picasso Fundazioan, ordezkari duen Rafael Pérez Hernando galerian, Camargoko La Vidriera kultur gunean, Sevillako Espacio Olvera galerian, Bartzelonako SWAB jaialdian eta ARCO azokan.*

**TAILERRA** (URTARRILAREN 9AN ETA 10EAN, IGANDEAN ETA ASTELEHENEAN)

## "ZINEMA-TRUKAJEA: ALICE GUYRENGANDIK GEORGES MÉLIÈSENGANA"

Parte-hartzaileek zinemaren historiako aurrerapen tekniko nagusiak ezagutuko dituzte, bereziki **Alice Guy**ren ekarpenak, eta zinema-trukajeak erabiliko dituen film labur bateko protagonista izango dira. Lantegia bukatzean erakutsiko dute filma.
**MICE** (Muestra de Cine Educativo de Madrid) jaialdiko ordezkari J**OSÉ MARÍA JIMÉNEZ**en eskutik. Hezkuntza-helburuak dituen MICE jaialdiak ikus-entzunezko alfabetatzea sustatzen du, eta batez ere haur, gazte, familia eta irakasleei zuzenduta dago.

**SAIOA** (URTARRILAREN 11N ETA 12AN, ASTEARTEAN ETA ASTEAZKENEAN)

## "LEHEN HURBILKETA ZINEMARA ALICE GUYREN ESKUTIK"

**Alice Guy**ren film laburren sorta baten emanaldia. **Imanol Rayo** zinemagile nafarrak zinemaren hastapenak azalduko ditu, eta hizkuntza zinematografikoaren oinarri diren erreferenteak aztertu.
**IMANOL RAYO**. *Andoaingo Zinema Eskolan zinema-zuzendaritzan graduatu zen, eta Urnietan gidoigintza ikasketak egin zituen Michel Gaztambiderekin. 'Bi anai' bere lehen fimak Zinemira saria jaso zuen Donostiako Zinemaldian 2011n eta 'Hil kanpaiak' bere bigarren luzemetraiak 'New directors' sailean leihatu zen 2020an Donostiako Zinemaldian bertan.*

**SAIOA** (URTARRILAREN 13AN, OSTEGUNEAN)

## "ALICE GUY ALEJANDRA VAL CUBEROREKIN"

**Alice Guy**ren film labur batzuk eskainiko dira. **Alejandra Val Cubero** ikertzaileak egingo du aurkezpena eta emanaldiaren ondoren solasaldia izango da.
**ALEJANDRA VAL CUBERO**ren eskutik.

*Gure aliatuen parte-hartzearekin: Amaiur Ikastola, Colegio Santa Teresa de Jesús, IES Iturrama BHI, IES Navarro Villoslada BHI, Servicio de Participación Educativa (SEI), Asociación cultural Soterraña (Biurrun)*

